



**GIPUZKOAKO ESKUBALOI
FEDERAZIOAREN LEHIAKETA ARAUDI
NAGUSIA**



GIPUZKOAKO ESKUBALOI FEDERAZIOAREN LEHIAKETA ARAUDI NAGUSIA

I. KAPITULUA: Lehiaketen baimenak

1.1 Txapelketak eta torneo ofizialak	3
1.2 Txapelketetatik erretiratzea, txapelketetan ez agertzea	3
1.3 Zorrak	3
1.4 Lagunarteko partidak	3
1.5 Zigor ekonomikoen taula, I kap.	4

II. KAPITULUA: Jokalarien eta ofizialen partaidetza

2.1 Jokalarien eta ofizialen zerrenda.	4
2.2 Goragoko mailan jokatzeko baimena	5
2.3 Goragoko mailan joka dezaketen jokalarien kopurua	5
2.4 Entrenatzaileak eta ordezkariak	5
2.5 Tramitazioa	6
2.6 Fitxen bikoiztasuna	6
2.7 Fitxak goragoko mailan	6
2.8 Kiroltasunaren saria	7
2.9 Askatasun-agiriak	7
2.10 Zigorren taula, II Kap.	8

III. KAPITULUA : Partidak – Lehiaketak

3.1 Jantzi berdinak	8
3.2 Lizentziak aurkeztea, bereizgarriak	9
3.3 Portaera jokalekuan	9
3.4 Jokalari-zerrenda desegokiak	9
3.5 Partiden ordutegiak	10
3.6 Aldagelak eta jokalekuak	11
3.7 Indar publikoa	12
3.8 Sarrerak eman beharra	13
3.9 Araudia eta sailkapen irizpideak	13
3.10 Zigorren taula, III Kap.	15

IV. KAPITULUA: Arbitroen jardunerako araudia

4.5. Arbitroen betebeharrak	15
4.6. Arbitroen ordainsariak	16
4.7. Klubeko arbitroa izendatzea	16
4.8. Arbitrorik gabeko partida	16

V. KAPITULUA: Txostenak eta protestak

5.1. Aktak, txostenak, protestak	17
5.2. Txostenak eskatzea	18

VI. KAPITULUA: Federazio organoak

6.1. Federazio ordezkariak	18
6.2. Federazioko zirkularrak	18
6.3. Elkarriketak klubekin	18
6.4. Lurralde amnistiak	18
6.5. Goleatzaile onenak	18
6.6. Hautatutako jokalaria	19
6.7. Indarrean dauden araudiak	



I.- LEHIAKETEN BAIMENAK

1.1. Txapelketak eta torneo ofizialak

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak berari dagozkion kategorietako lehiaketak antolatuko ditu, betiere Batzarrean onartutako irizpideen arabera; kategoria igoerarik edo jaitsierarik baldin badago, oinarrietan jasoko du.

1.2. Txapelketatik, kopatik, torneoetatik erretiratzea, edo haietan ez agertzea

Partida eta Lehiaketen araudietan eta Diziplina Araudian ezarritakoa beteko da; zigor ekonomikoak, ordea, Kluben Araudikoak izango dira (ikus 1.5 taula, zigorrei buruzkoa).

1.3. Zorrak

Diziplina Batzordeak edo beste batzorderen batek ezarrita, klubek, jokalariek, ofizialek eta/edo arbitroek izan ditzaketen zorrak ordainduta eduki beharko dira zigorra ezarri den denboraldia amaitzerako, hau da, ekainaren 30erako. Epe hori amaiturik, % 20ko errenergua izango dute, eta bi hilabete pasa eta gero % 40ko errenergua izango dute. Denboraldi hasieran aurreko urteko zorrak kitatu gabe dituen klubak ezin izango du izena eman.

1.4. Lagunarteko partidak

Era honetako partidak jokatzeko, araututa dagoenaz gainera, ondoko arauak bete beharko dira:

A) Federazioan baimena eduki; hori idatziz eskatu ahal izango du federatuta dagoen klubak lurralde federazio honetan, PARTIDA/K JOKATUKO DEN/DIREN EGUNA SAINO gutxienez ZAZPI EGUN LEHENAGO.

B) Gogoratu arbitro bakar batek ere ez daukala baimenik partida hauen zuzentzeko, aldez aurretik Federazioaren baimenik aurkezten ez badu eta ARBITROEN BATZORDEAK izendatzen ez badu. Izendapena zuzenean bidaliko zaie arbitro izendatuei, baina agertzen ez badira, eta klubak baimen idatzia baldin badauka, honek eskatzen dion beste arbitro batek gidatu ahal izango du partida.

C) Zenbateko hauek ezartzen dira lagunarteko partidetarako edo lagunarteko torneoetarako:

- LAGUNARTEKO PARTIDA BAT 12 EURO
- .. LAGUNARTEKO TORNEO BAT 24 EURO



D) Nahitaez bi arbitro ariko dira lagunarteko partida eta torneoetan, bi arbitro egotea ezinezkoa den kasuetan izan ezik. Lagunarteko partidetarako arbitroak eskatzen dituztenean, programazio ofizialak izango du lehentasuna, eta baimena ukatuko da gutxienez epaile bat bidaltzerik ez badago.

E) Lagunarteko partida guztietan nahitaezkoa izango da aktak idaztea, eta dagokion federazioan lizentzia tramitatuta izan beharko dute partida horietan ariko diren jokalariei eta epaile guztiek.

Nahasteak saiheste aldera, entrenamendu partidatzat hartuko dira arbitro ofizialik gabe jokatzen diren eta inolako diru bilketarik egiten ez den partida guztiak.

1.5. Zigor ekonomikoak (I. Kapitulua)

Lehiaketa hustea, ez agertzea Txapelketan, Kopak eta torneoak.

EZ AGERTZEA:

Kadeteak eta jubenilak	200 €
Seniorrak	300 €

EZ AGERTZEA:

Kadeteak eta jubenilak	400 €
Seniorrak	600 €

LEHIAKETA UZTEA:

Kadeteak eta jubenilak	200 €
Seniorrak	350 €

II.- JOKALARIEN ETA OFIZIALEN PARTAIDETZA

2.1. Jokalarien eta ofizialen zerrenda

GIPUZKOAko Lurralde Federazioaren lehiaketetan gehienez ere 16 jokalariko eta gutxienez 10 jokalariko zerrenda aurkeztu ahal izango da.

Salbuespen gisa, 12 jokalariei baino gutxiagorekin izena eman duten taldeek 10 jokalariei baino gutxiagoko jokalariei zerrenda aurkeztu ahal izango dute, gutxieneko batzuk beteta, ondorengo formularen arabera: taldean izena eman dutenen kopurua - 2 jokalariei.



Taldean izena eman dutenen kopuerua	Partidara aurkeztu beharko den gutxieneko zerrena
12 jokalarik +/-	10 jokalarik
11 jokalarik	9 jokalarik
10 jokalarik	8 jokalarik

2.2. Goragoko mailan jokatzeko baimena

Kategoria baxuagoko jokalariek onartzen diren lehiaketetan aritzeko, kategoria baxuagoko jokalariek BAIMENA eskatu beharko diote KIROL DIZIPLINA BATZORDEARI. Horretarako berariaz prestatuko den orria erabili beharko da, eta BAIMENA eskatzen den lehiaketarako zehazten diren baldintzak bete beharko dira.

Erabat debekatuta dago goragoko mailan jokatzeko BAIMENA daukaten kadete jokalariek adinez dagokiena baino goragoko mailan aritzea, egun berean bere KATEGORIAN ari izan badira,edo aritzekoak badira. LERROKATZE BIDE GABETZAT hartuko da BAIMENA emandako KATEGORIAN.

2.3. Goragoko mailan joka dezaketen jokalarien kopurua

Partida bakoitzean gehienez ere 4 jokalarik ariko dira adinez dagokiena baino goragoko mailan, betiere aurreko ataleko araudia betetzen badute.

2.4. Entrenatzaileak eta ordezkariak

Partida ofizialak jokatzen direnean, talde guztiek aurkeztu beharko dute gutxienez OFIZIAL bat (prestatzailea, laguntzailea, taldearen ordezkaria edo taldearen ofiziala) fitxa duena eta partida jokatzen den lekuan egongo dena. Arau hori betetzen ez bada, zigorren taulan ezarritakoa erabiliko da.

Partida ofizial guztietan egongo da talde antolatzailearen KANTXAKO-ORDEZKARIA, fitxa duena (taldeko ofiziala). Haren egitekoak Partiden eta Lehiaketen Araudian daude jasota, eta han agertzen diren egitekoak bete ezean, Diziiplina Araudiak ezarritakoaren arabera zigortuko da.

Jokalekuko ordezkariak ez badago, 2.1 Otulan jasotako zigorra ezarriko zaio.

Edozein OFIZIALEK (prestatzailea, laguntzailea, taldearen ordezkaria edo taldearen ofiziala) bete ahal izango ditu zelaiko-ordezkaritzaren funtzioak, BAITA SENIOR KATEGORIAKO EDOZEIN JOKALARIK, betiere klub antolatzaileak



izapidetutako fitxa baldin badu. 18 urte baino gutxiago dituenak ezin izango du zelaiko-ordezkarri gisa jardun.

2.5. Tramitazioa

Fitxak aurkezteko azken egunetik kontatzen hasita, BI HILABETEKO epean, PRESTATZAILE, PRESTATZAILE LAGUNTZAILE edo TALDEAREN ORDEZKARIAREN fitxak aurkeztu ez dituen taldeak **18 Euroko zigorra** izango du.

Talde guztiek eduki beharko dute PRESTATZAILEAREN edo PRESTATZAILE LAGUNTZAILEAREN fitxa, eta ondoko tituluak eskatzen dira kategoriatan bakoitzerako:

PRESTATZAILEA:

Infantil - kadeteak – jubenilak	PDJ1
Lurraldeko 1. Eta 2. Maila	MONITORE TITULUA (1.maila)

PRESTATZAILE LAGUNTZAILEA:

Infantil - kadeteak – jubenilak	PDJ1
Lurraldeko 1. Eta 2. Maila	MONITORE TITULUA (1.maila)

2.6. Fitxen bikoiztasuna

Fitxak bikoiztuta eduki ahal izango dira, ondoko arau eta zigor hauen pean:

- A) FEDERAZIOKO BI FITXA (nazionala eta lurraldekoa) dituen jokalaria bat edo ofizial bat fitxa duen maila gorenean aritzeko gaitasungabetzen badute, kategoriatan nazional horretan aplikatuko zaio zigorra.
- B) Saina kategoriatan baxuenean zigortzen badute (lurraldekoa), Kirol Diziplina Batzordeak goragoko organoetan emango du zigorraren berri, eta haiek erabakiko dute harako ere (nazionala) zigortu edo ez.
- C) Bi fitxak LURRALDE mailarako badira, BI FITXEI ezarriko zaie zigorra; hau da, ezingo da inolako zerrendetan sartu harik eta zigorra amaitu arte. ZERRENDAREN BATEAN SARTZEN BADA, DIZIPLINA ARAUDIAN EZARRITAKOA APLIKATUKO ZAIO ZIGORRA URRATZEAGATIK.

2.7. Fitxak goragoko mailan

Ezinbesteko kasuetan, eskatzen den adinera iristen ez diren jokalariei fitxak egingo zaizkie, baldin eta klubak kategoriatan baxuagoan talderik ez badu; aurretik, ordea, KIROL DIZIPLINA BATZORDEARI eskatu beharko zaio baimena. Jokalari horiek adinagatik dagokien maila goragoko horretan bakarrik jokatuko



dute, lehiaketak berak ezarrita dituen mugekin betiere (kategoria baxuagoko jokalarien kopuru mugatua, ...).

Kasu guztietan, jokalaria jubenilak badira, senior taldea duen klubak genero bereko (emakumezkoena edo gizonezkoena) kadete taldea ere eduki beharko du. Jokalaria hauek baimena izango dute Gipuzkoako Eskubaloien Federazioak antolatzen dituen lehiaketetarako.

Igoera fasea jokatzeko sailkatzen den taldeetakoren batek era honetako fitxa duen jokalaririk izango balu, Gipuzkoako Federazioak Euskadikoa jarriko luke jakinaren gainean, egoki irizten diana erabaki dezan.

2.8. Kiroltasunaren saria

- Kiroltasunaren saria kategoriatan talde bati emango zaio kategoriatan bakoitzean, betiere ondokobaldintzak betetzen baditu:
- Gipuzkoako Eskubaloien Federazioak kategoriatan horretarako antolatzen dituen lehiaketa guztietan parte hartu.
- KIROL DIZIPLINA BATZORDEAK eta ZUZENDARITZA BATZORDEAK zigortua ez izan.
- Bi talde edo gehiago berdinduta egonez gero, kategoriatan horretako Gipuzkoako Txapelketan lortutako sailkapena hartuko da aintzat.
- Kiroltasunaren saria irabazten duen taldeko ENTRENATZAILE ETA ORDEZKARIARI ere sari bera emango zaie. Pertsona horietakoren batek fitxa egina ez badu, ez dute saririk jasoko.

2.9. Askatasun agiriak.

Klubez aldatzera doan jokalaria klubak eman behar dion askatasun gutunari dagokionez, Federazio honek argitu nahi du ondoko materiala jatorrizko klubari itzuli beharrekotzat jotzen dela:

KIROL POLTSA, - TXANDAL OSOA - LEHIAKETA KAMISETAK ETA LEHIAKETAGALTZAK.

Hori, noski, non eta ez daukaten bestelako akordio IDATZIRIK klubak eta jokalaria. Materiala itzultzeko baldintza hori betetzen denean, klubak nahitaez eman beharko dio askatasun gutuna jokalaria.



2.10. Zigorren taula (II. Kapituluak).

Entrenatzaileak eta ordezkariak:

1. Arau-haustea	OHARTARAZPENA
2.- Arau-haustea	5 EURO
3.- Arau-haustea	10 EURO
4.- Arau-haustea	20 EURO
Ondorengoak	30 EURO

Jokalariak:

Partidaren aktan ez izena ematea eta Araudi honek 2.1. artikuluan exigitzen duen moduan talde batek ha mar (1 O) jokalaria ez aurkeztea jokalaria bakoitzeko 10 euroko isunarekin zigortuko da gizonezkoen eta emakumezkoen seniorren mailan, eta jokalaria bakoitzeko 5 euroko isunarekin gizonezkoen eta emakumezkoen jubenil eta kadeteen mailan.

Hala ere, ez dira zigortuko taldeak hamar (1 O) jokalaria baino gutxiagorekin, baina beti ere gutxienez zortzi (8) jokalarirekin gauzatzen dituen lehen lau joan-etorriak, salbu eta azken lau jardunaldietan gauzatzen dituenak. Arau-haustea daudenean, aurreko ahapaldian xedatutakoa ezarriko da.

III.- PARTIDAK- LEHIAKETAK

3.1 Jantzi berdinak

Talde bereko jokalariek beren taldearen jantziekin jokatu dute partida guztia, kolorea eta diseinua beste taldearenetik erraz bereizten dena izango da eta kirol oinetakoak eraman beharko dira nahitaez. Atezainen jantzien kolorea bi taldeen koloreekin eta beste atezainaren kolorearekin onda bereizten dena izango da.

Behin denboraldia hasten denean, taldeek ezingo dituzte hautatutako eta Federazioari jakinarazitako koloreak aldatu (nagusia eta/edo ordezkia), non eta berariazko idatzi batean eskaera egin eta horretarako baimena jasotzen ez duten; halakorik gertatuko balitz, baimena eman eta handik hamabost egunera sartuko litzateke indarrean (15).

Aurreko paragrafoetan jasotakoa betetzen ez duten jokalariek ezingo dute parte hartu, harik eta ikusitako hutsuneak konpondu arte.

Debekatuta dago honako hauek eramatea: aurpegia eta/edo burua



babestekoa, eskumuturrekoak, erlojuak, eraztunak, lepokoak, belarritakoak, betaurrekoak eusteko zinta elastikorik edo armazoi solidorik gabe, bai eta jokalarientzat arriskutsu izan litekeen beste edozein gauza ere.

Jantzi berdinak edo antzekoak dauzkaten bi taldek elkarren kontra jokatzen dutenean, eta nahasteko arriskurik egonez gero, kanpoko taldeak aldatuko du jantzia. Partida jokaleku neutralean jokatzen bada, ordea, zozketaz erabakiko da nork aldatuko duen jantzia.

Badaezpada, bi taldeek bi kirol jantzi eraman beharko dituzte partidetara.

Jokalariek jantzian eramaten dituzten zenbakiak jantziarekin kontrastea egiten duen kolore batekoak izango dira; zenbakiak kamisetaren erdialdean jarri beharko dira, 20 cm-koak izango dira bizkarraldean, eta 10 cm-koa aurrealdean. Ezinbestekoa izango da bat bizkarraldean eramatea, eta beste bat gutxienez aurrealdean, dela kamisetan edo dela galtzetan.

3.2 Lizentziak aurkeztea, bereizgarriak.

Gutxienez ordu erdi lehenago, taldearen arduradun ofizialak arbitroari eramango dizkio partidan parte hartuko duten jokalarik eta ofizial guztien lizentziak, hark aktan jaso ditzan.

Klubek lizentziak indarrean izan beharko dituzte eta lizentzia horiek Euskadiko Eskubaloien Federazioak onartutako formatu ofizialean aurkeztu beharko dira.

Fitxa izapidetzen ari diren triptikoen kopiak eta originalak baimenduko dira, baina hilabeteko epe luzaezin baterako baino ez, triptikoa zigilatzen den egunetik zenbatzen hasita.

3.3 Portaera jokalekuan

Partiden hasiera orduak errespetatu egingo dira eta atsedenaldiaren ondoren ez da atzerapenik onartuko.

Ordezkoen aulkian baimena duten pertsonak soilik egongo dira, eta ezingo dute handik alde egin harik eta partida amaitu arte; handik joan daitezkeen bakarrak jokatzerantz sartzen diren ordezko jokalariek izango dira.

Ofizialek aulkia uzteko, justifikatutako arrazoiak edo arbitroaren

baimena beharko dute. Aulkian EZINGO DA ERRE, JAN ETA/EDO EDARI

ALKOHOLDUNIK HARTU.

Arbitroen aldagelara BAIMENA DUTEN PERTSONAK bakarrik sartu ahal izango dira.



3.4 Jokalari-Zerrenda desegokiak

Talderen batek jokalaria edo ofizialen bat sartzen badu zerrendan dagokion federazio baimenik eduki gabe, jokalaria zerrenda desegokitzen hartuko da eta ondoko zigorrak ezarriko dira:

Ez dagokion jokalaria bat zerrendan sartzen den lehen aldian, oharkabetasunak edo axolagabekeriak eraginda izan bada, **15 euroko** zigorra ezarriko zaio klubari.

Ez dagokion jokalaria bat zerrendan sartzen bada, eta klubaren asma txarraren ondorio izan bada, edo denboraldi berean hori gertatzen den bigarren aldian bada, oharkabetasunaz gertatzen denean, partida galdutzat emango zaio 10-0, eta kanporaketa izanez gero, kanporaturik geldituko da. Kasu hauetan, zigor ekonomikoa **120 eurokoa** izango da kadete eta jubenil kategorietarako, eta **300 eurokoa** senior kategoriarako.

Ez dagokion ofizial bat (entrenatzailea, laguntzailea, ordezkaria edo ofiziala) zerrendan sartzen den lehen aldian, oharkabetasunak edo axolagabekeriak eraginda izan bada, BI JARDUNALDIKO eta **15 euroko** zigorra ezarriko zaio ofizialari.

Ez dagokion ofizial bat (entrenatzailea ...) zerrendan sartzen bada, eta klubaren asma txarraren ondorio izan bada, edo denboraldi berean hori gertatzen den bigarren aldian bada, oharkabetasunaz gertatzen denean, LAU JARDUNALDIKO eta **30 euroko** zigorra ezarriko zaio ofizialari.

Ez dagokion ofizial bat (entrenatzailea ...) zerrendan sartzen bada, eta klubaren asma txarraren ondorio izan bada, edo denboraldi berean hori gertatzen den lehen aldian ez bada, oharkabetasunaz gertatzen denean, ZORTZI JARDUNALDIKO eta **60 euroko** zigorra ezarriko zaio ofizialari. Gainera, taldeari partida galdutzat emango zaio **10-0**, eta kanporaketa izanez gero, kanporaturik geldituko da.

3.5 Partiden ordutegiak

- Programazioa: Lehiaketa ofizialetako partidak Gipuzkoako Eskubaloien Federazioak programatu ditu, hartarako prestaturiko egutegiaren arabera.
- Arau orokor bezala, partidak larunbat arratsaldeetan eta igande goizetan izango dira. Batzarrean erabakiko da zein kategoriak jokatu duten larunbatetan eta zeinek igandeetan. Kadete eta jubenil mailako lehiaketetan, bai emakumezkoen eta bai gizonezkoen artean, larunbat goizetarako edo arratsalderako eta igande goizetarako programatu ahal izango dira partidak.



- Hasiera ardua: LARUNBAT goizetako partidak **10:00etatik 13:00etara** hasiko dira, eta arratsaldekoak **16:00etatik 20:00etara**.
- IGANDEETAKO eta JAIEGUNETAKO partidak **10:00etatik 13:00etara** hasiko dira. Taldeak ados daudenean, LARUNBAT GOIZETAN ere jarri ahal izango dira partidak(09:00etatik 12:00etara hasiko dira) Federazioaren oniritziarekin.
- Partida guztiak iraugarritako orduan hasiko dira.

- Ordutegiak jakinaraztea: Talde antolatzaileek partidaren HASIERA ORDUA Federazioari jakinarazi beharko diote aste bat lehenago.

- Ordutegi aldaketak: **JARDUNALDIA JOKATU AURREKO ASTEARTEKO 19:00AK ARTE EGIN AHAL IZAGO DIRA ALDAKETAK.** Aste barruko JAIEGUNETAN jokatuko diren partidetarako aldaketak **72 ORDU LEHENAGO** eskatuko dira. Klub interesdunak proposatu beharko dio aurkariari ordu aldaketa. Kudeaketa hori guztia datekin eta orduekin dokumentatu beharko da, eta, horretarako biderik onena posta elektronikoa erabiltzea da. Garaiz eta forman aurkeztu beharko dira bi klubek posta elektronikoak, ordu aldaketari oniritzia emanez, eta posta elektronikoko horietan zehaztuta agertu beharko da zein klubetatik datozen nahiz zein pertsonak bidali dituen.

- Eguna aldatzea: Aurretik bi taldeak ados jarri eta Federazioaren adostasuna baldin badute, partidak aurreratu edo atzeratu egin ahal izango dira, baina egutegi ofizialean JARDUNALDI BAT GEHIAGO-GUTXIAGO aldatu ahal izango da bakarrik, ondoko salbuespenekin, eta Batzordearen ustez ezinbesteko kasua bada:
 - Partida lehen itzulikoa bada, lehen itzulia bukatu baino lehen jokatu beharko da.
 - Partida bigarren itzulikoa bada, azken bi jardunaldiak baino lehen jokatu beharko da.
 - Azken bi jardunaldiak ezingo dira EZ ATZERATU EZ AURRERATU.
 - Bi klubek posta elektronikoko bat bidali beharko dute Federaziora egun aldaketa eta partida jokatzeke egun eta ordu berriak onartuz, aurreko puntuan jasotako epeen barruan.

3.6 Aldagelak eta jokalekuak

- Aldagelak: Talde bakoitzak bere aldagela izango du, jokalarientzako nahikoa eserleku eta esekigailu dituen, edo halakorik ezean, arropa gordetzeko leku itxia duena. Beste aldagela bat egongo da bakarrik arbitroek erabiltzeko, gutxienez bi (2) eserleku, bi esekigailu eta mahai bat dituen.



- Mahaiak eta aulkiak: Mahai bat jarri beharko da eta gutxienez bi (2) aulki (lau, ohartzailerik egongo balitz) jokalekuaren kanpoaldean. JOKALEKUKO ORDEZKARIARENTZAT, KRONOMETRATZAILEARENTZAT ETA FEDERAZIOTIK ETOR LITEZKEEN KIDEENTZAT izango dira aulkiak.
- Eserlekuak: erdiko mahaiaren alde banatan bankuak jarriko dira, partidako aktan izena emanda ageri diren jokalarientzat eta talde teknikoarentzat nahikoa eserlekurekin, talde lehiakideek erabil ditzaten; PARTIDEN ETA LEHIAKETEN ARAUDIAK baimentzen dituen pertsonak soilik eseri ahal izango dira haietan. Eserlekuak ikusleengandik ando bereizita egon beharko dira. Joko eremuko banku hauen kokapena ezingo da aldatu denboraldian zehar.
- Ur-hornidura. Partida ofizial edo lagunarteko batean parte hartzen duten guztiek, epaileak barne, ura kontsumitzeko ontzi indibidual batekin joan beharko dira partidara. Erabat debekatuta dago kristalezko ontziak erabiltzea. Partida antolatzen duen klubak nahitaez ur edangarria eskaini beharko du ontziak bete ahal izateko.
- Sareak: Arbitroak jokalekura sartu aurretik begiratura edukiko dira ateetako sareak, konpondu behar izanda ere.
- Markagailua: NAHITAEZKOA izango da golak jasoko dituen markagailu bat jartzea, jokalekuko edozein lekutatik ikusteko moduan.
- Hormako erlojua: OHAR-HARTZAILEA izendatu eta bertan dagoenean soilik erabiliko da ofizialki. ORIENTAZIO moduan erabili ahal izango da, aurreko puntuan jasotako baldintza ofizialik ez dagoenean, baina ZATI BAKOITZA AMAITU BAINO BOST MINUTU LEHENAGO geldiaraziko da.
- Jokalekua markatzea: Federazio honek inprimaki bat prestatu du, klubek izena ematerakoan bete eta entregatu beharko dutena. Partida bat jokatzen denean, arbitroak zorrotasun handiz begiratu du atal honetan eskatzen direnak betetzen ote diren, eta AKTAN jasoko ditu anomalia guztiak.
- Ikusleen kokapen: Kontuan eduki behar da ikusleek gutxienez BI METRORA egon behar dutela jokalekutik.
- Agintarien eserlekuak: Eserlekuak dauzkaten jokaleku guztietan gutxienez hamabi (12) eserleku gordeko dira agintari eta federazioko kideentzat.
- Aldageletarako sarrera: Jokalarien eta arbitroen aldageletako ateak PARTIDA HASI SAINOSERROGEITA SOST MINUTU LEHENAGO irekiko dira.
- Jokalekurako sarrera: Sai arbitroek bai bi taldeek JOKALEKURA SARTZEKO AUKERA EDUKI BEHAR DUTE PARTIDA HASI BAINO



HAMABOST MINUTU LEHENAGO. Jokalekuan beste partida bat edo beste zerbait baldin badago, taldeek beste lekuren batean egin ahal izango dute beroketa. Nolanahi ere, talde guztiek daukate eskubidea jokalekuan GUTXIENEZ HAMASOST MINUTUKO beroketa egiteko.

3.7 Indar publikoa

Partidak antolatzen dituzten klubek obligazioa daukate dagokion agintaritzari INDAR PUSLIKOAK jokalekuan izan daitezen eskatzeko. Ezinbesteko kasuren bat dela medio, INDAR PUSLIKOAK partida batera bertaratzerik izango ez balu, talde antolatzailaren ardura izango dira jokalekuan gerta litezkeenak.

3.8 Sarrerak eman beharra

Federazio honetako kide izan eta hark antolatutako lehiaketetan eta torneoetan parte hartzenduten klub guztiek kanpoko taldeari HOGEI SARRERA eman beharko dizkiote, partidaren edo torneoaren parte hartzen duten JOKALARIEN ETA TALDE TEKNIKOAREN sarrera baimenez gainera, baldin eta partidak jokaleku itxian jokatzen badira eta sarrera kobratzen badute.

3.9 Araudia eta sailkapen irizpideak

LIGA sistema: Itzuli batera, bira edo gehiagotara joka daiteke, denak denen aurka, hartarakoezarritako egutegiaren arabera.

Talde bakoitzak lortzen duen puntu kopuruaren arabera egingo da sailkapena, puntuak honela banatuta:

Irabazitako partida	= BI puntu
Serdindutako partida	= P u n t u BAT
Galdutako partida	= ZERO puntu

Bi talderen edo gehiagoren artean puntu berdinketarik gertatuz gero, honako hauek izangodira sailkapen irizpideak:

A.- LIGA sistema ITZULI SATERA

A-1: BI KLUBEN ARTEKO PUNTU BERDINKETA

1. Si klubaren artean jokatutako partidaren emaitza.
2. Gol diferentzia handiena nork duen, txapelketan parte hartzen duten klub guztienak kontuan hartuta.



3. Aldeko gol kopuru handiena nork duen, klub guztiek kontuan hartuta.
4. Aldeko golak zati kontrako golak egineta emaitza onena nork duen, beti ere berdindutako klubaren artean.
5. Aldeko golak zati kontrako golak egin eta emaitza onena nork duen, beti ere klub guztiekin jokaturako partidak kontuan hartuta.
6. Hala ere berdinduta jarraituko balute, berdinketa hausteko partida bat jokaturako dute jokaleku neutral batean, arauzko luzapen eta guzti, behar izanez gero.

A- 2:BI KLUB BAINO GEHIAGOREN ARTEKO PUNTU BERTINKETA

1. Bertinduta dauden klubaren arteko partidak soilik aintzat hartuz, punturik gehien nork duen.
2. Gol diferentzia handiena nork duen, elkarren arteko partidak soilik kontuan hartuta.
3. Gol diferentzia handiena nork duen, gainerako klub guztienak kontuan hartuta.
4. Aldeko gol kopuru handiena nork duen, bertinduta dauden arteko partidak soilik kontuan hartuta.
5. Aldeko gol kopuru handiena nork duen, txapelketan parte hartu duten klub guztien kontrako partidak aintzat hartuz.
6. Aldeko golak zati kontrako golak egineta emaitza onena nork duen.

B.- LIGA sistema BI ITZULI EDO GEHIAGOTARA

B-1: BI KLUBEN ARTEKO PUNTU BERTINKETA

1. Gol diferentzia handiena nork duen, bi klubek elkarren aurka jokaturako partidak aintzat hartuta.
2. Gol diferentzia handiena nork duen, Ligan parte hartzen duten klub guztienak kontuan hartuta.
3. Aldeko gol kopuru handiena nork duen, klub guztiek kontuan hartuta.
4. Aldeko golak zati kontrako golak egin eta emaitza onena nork duen, beti ere berdindutako klubaren artean.
5. Aldeko golak zati kontrako golak egineta emaitza onena nork duen, beti ere klub guztiekin jokaturako partidak kontuan hartuta.
6. Hala ere bertinduta jarraituko balute, berdinketa hausteko partida bat jokaturako dute jokaleku neutral batean, arauzko luzapen eta guzti, behar izanez gero.



B-2: BI KLUB BAINO GEHIAGOREN ARTEKO PUNTU BERTINKETA

1. Berdinduta dauden klubaren arteko partidak soilik aintzat hartuz, punturik gehien nork duen.
2. Gol diferentzia handiena nork duen, elkarren arteko partidak soilik kontuan hartuta.
3. Gol diferentzia handiena nork duen, talde guztienak kontuan hartuta.
4. Aldeko gol kopuru handiena nork duen, berdinduta daudenenak soilik kontuan hartuta.
5. Aldeko gol kopuru handiena nork duen, lehiaketan parte hartu duten klub guztienak kontuan hartuta.
6. Aldeko golak zati kontrako golak egin eta emaitza onena nork duen.

C.- LIGA sistema ITZULI BATERA eta JOKALEKU NEUTRALEAN

Kasu hauetan, **(B)** atalean jasotako guztia aplikatuko da, bi itzuli edo gehiagotara jokaturako liga izango balitz bezala.

3.9.2. Berdinduta dauden taldeetakoren bat jokalaria edo ofizial zerrenda desegokiagatik, ez agertzeagatik edo erretiratzeagatik zigortua izan bada, araua urratu ez duen taldearen alde hautsiko da berdinketa, eta arau urratzailea berdinduta geratu direnen artean azkena geratuko da.

Era berean, berdinketa bat argitzeko sailkapen nagusia erabili behar bada, eta berdinduta dauden taldeetakoren batek partida bat Kirol Diziiplina Batzordearen erabakiz irabazi badu aurkariaren jokalaria edo ofizial zerrenda desegokiagatik, ez agertzeagatik edo erretiratzeagatik, araua urratu duen taldearen emaitzak ez dira aintzat hartuko sailkapen nagusian.

3.10 Zigorren taula (III. Kapituluak).

III. Kapitulu osoari aplikatzekoa, 3.4 eta 3.9 artikuluei izan ezik

1.a	=	OHARTARAZPENA
2.a	=	5€
3.a	=	10€
4.a	=	15€
Ondorengoak	=	30€



IV .- ARBITROEN JARDUNERAKO ARAUDIA

4.1 Epaileen betebeharrak-

Jardunean dauden epaile guztiek arbitroen estamentuen araudia bete beharko dute. Era berean, partiden izendapenak jaso beharko dituzte, ostegunetik aurrera (**edo Euskadiko Federazioak izendapenak argitaratzen dituenetik aurrera**) Gipuzkoako Lurralde Federazioaren web arrian. Baimen justifikatuak gutxienez astebete lehenago eskatuko dira; partida jokatu aurreko astearte iluntzeko 8etan amaituko da horretarako epea.

Epaileek beren ez agertzea justifikatzeko sinesgarriro frogatu beharko dute; hala egin ezean, Diziiplina Araudiaren 20, artikulua aplikatuko zaie.

Jardunaldi bakoitzeko epaileen aktak eta eranskinak Federaziora bidali beharko dira **JARDUNALDIA JOKATU ETA HURRENGO ASTEARTEKO ILUNTZEKO 8AK BAINO LEHEN**; horiek faxez edo posta elektronikoz bidali ahal izango dira, eta akten originalak Federazioaren lokaletan entregatu beharko dira beranduenera partida jokatzen denetik hamabost (15) laneguneko epean. Emaizak doako 900 840 020 telefono zenbakian (edo izendatzen den beste zenbakiren batean) **JAKINARAZTEN EZ BADIRA** jardunaldia jokatzen den asteburuko igande arratsaldeko hiruak baino lehen, zigorra ezarriko da.

Zigorrak:

- | | |
|-------------|------------------------------|
| 1.a | = Ohartarazpena. |
| 2.a | = Arbitraje eskubideen % 20. |
| 3.a | = Arbitraje eskubideen % 30. |
| 4.a | = Arbitraje eskubideen % 40. |
| Ondorengoak | = Arbitraje eskubideen % 50. |

Arbitroak jardunaldi bereko partida batean baino gehiagotan bete ez baditu bere zereginak, maila goreneko partidari dagozkion ordainsarrietan aplikatuko da zigorra.

4.2 Arbitroen ordainsariak.

- Kategoria bakoitzean arbitroei dagozkien ordainsariak, joan-etorrietakoak eta dietak Gipuzkoako Federazioaren Batzarrak erabakiko ditu.
- Lurralde mailako kategoria desberdinetako bi taldek parte hartzen duten lagunarteko partidetan, kategoria handieneko taldearen arabera kobratuko da.
- Arbitroaren ordainsaria dagokion partidan ordaintzen ez duen klubari araudi honetako 4.3 artikuluan jasotako zigor taula aplikatuko zaio.
- Gehiegi kobratu duten edo kobratutakoa justifikatu ez duten arbitroek hilabeteko epea edukiko dute dirua itzultzeko, Kirol Diziiplina Batzordeak erabakitzen duenetik kontatzen hasita; bestela, araudi honetako 1.3 artikuluan jasotakoa aplikatuko da.
- Dietak.- Partiden hasiera orduaren era arbitroen jatorriaren arabera.
-



4.3 Klubeko arbitroa izendatzea

Egun daukagun arbitro gabezia ikusirik, federazio honetako klub guztiek beren gain hartu beharko dituzte Federazioak izendatzen dizkien partidetak epaile lanak, horretarako hautatzen duten pertsona baten bidez; pertsona horren datuak Federazioari jakinarazi beharko zaizkio.

Pertsona hori partida epaitzera joaten ez bada, bere ardura duen klubak, dagozkion zigorrez gain, zuzendu gabe utzi duten partidak eragindako gastu guztiak ordaindu beharko ditu.

Zigorrak

1.a	= 30€
2.a	= 60€
3.a eta ondorengoak	= 90€

4.4 Epailerik gabeko partidak

- Hasiera batean, Federazioak GKE epaileak izendatuko ditu behar beste epaile-arbitro ez dagoen kategorietarako.
- Partida horietarako ez badago epaile-arbitrorik edo GKE epailerik, klubek jarriko dituzten bera epaileak.

Arau honen bidez beharrezko oinarriak ezarri nahi dira partida bakar bat ere bertan behera gera ez dadin arbitrorik ez dagoelako.

Denboraldian zehar anormaltasun honetan nahastuta gertatzen diren talde guztiek ondoko urratsak jarraitu beharko dituzte:

- Bi taldeak ados jarriko dira partida zuzendu dezakeen/dezaketen pertsona/k hautatzeko (JOKALARI, ZUZENDARITZAKO KIDE, IKUSLE eta abar).
- Akordio hori idatziz jasoko da partida hasi aurretik, eta bi taldeen arduradunek izenpetuko dute.
- Akordiorik egon ezean, partida ASTE BARRUAN jokatu beharko da, HURRENGO JARDUNALDIAREN AURRETIK.
Agertu ez den arbitroa KLUB BATEKOA baldin bazen, dagokion zigor taula aplikatuko da.
Beste zerbaitegatik izan bada (b taldeek arteko akordiorik eza), sor litezkeen gastu guztiak (bigarren partida) bi taldeen artean banatuko dira.
- Talde batek akordioari uko egiten badio, PARTIDA GALDUTZAT emango litzaioke, behin Kirol Diziiplina Batzordeak gertakari guztiak egiaztatzen dituenean.
Horretarako, bi taldeek txostena bidali beharko dute, partida ez jokatzeko arrazoi guztiak jasotzen dituen txostena, eta partida jokatzeko eguna proposatu beharko dute, hori guztia 72 orduko epean.



V .- TXOSTENAK ETA PROTESTAK

5.1 Aktak, txostenak eta protestak.

- Arbitroek partidaren amaieran klubei dagokien aktaren kopia bana emango die, non eta aktan jaso beharreko gertakariak edo eurei gertatutakoak direla medio akta entregatzea komeni ez den. Eta gainerakoak dagokien lekura bidaliko dituzte URGENTE moduan, araudi honetan ezarrita bezala, edo Federazioan bertan entregatuko dute hogeita lau (24) orduko epean.
- Federazioko agintariek eskatu adina kopia egingo dizkiete aktei, dagokienek. Justifikatutako arrazoiak direla medio partida amaieran klubei eman ez zaizkien aktak egun berean helarazi beharko zaizkie.
- Aldi berean, aktaren eranskin edo gehigarri guztiak ere Gipuzkoako Eskubaloien Federaziora bidali beharko dituzte arbitroek.
- Dena dela, aurreko ahapaldietan ezarritako epeetan klub interesdunei aktarik, aktaren eranskinik edo gehigarririk entregatu ezin izana dagokion organoaren aurrean behar bezala justifikatzen bada betiere, arbitroek kopia bat aurreratuko diote Federazioari faxez edo posta elektronikoz partida jokatu eta hurrengo hogeita lau (24) orduetan, eta kopia horren originalak partida jokatzen denetik gehienez ere hamabost (15) laneguneko epean bidaliko dituzte. Federaziotik eraginpeko klubetara dokumentuen kopia bana bidaliko da ahalik eta azkarren.
- Taldeetako ofizial arduradunek eskubidea dute aktan ondoko gaien gaineko protestak edo salaketak jasotzeko: jokalarien legezko egoera, jokalekuaren egoera txarra, ikusleen portaera eta abar; arbitroek idatziko dituzte, argi eta labur, eta erreklamazioen azpialdean izenpea jasoko dute, ondorengo artikuluetan aurreikusitako kasuetan izan ezik.
- Klub batek egoki irizten badio, gertatutako gaineko txostena egin ahal izango du, erreklamazioak aktan berretsi edo aurkarien erreklamazioei erantzun, Kirol Diziplina Batzordeari idatzi bat bidalita PARTIDA JOKATU ETA HURRENGO BERROGEITA ZORTZI (48) ORDUEN BARRUAN. Idatzi horretan azalduko ditu, ahalik eta modurik objektibo eta zuzenenean, haren iritziz arbitroek egin dituzten akatsak edo izan dituzten hutsuneak, eta beharrezko iritziz gero, baita partidaren zehar izan diren gorabeheren xehetasunak eman ere.
- Zuzenean parte hartu ez duten partiden gainean klubek erreklamaziorik egin nahi izanez gero, Kirol Diziplina Batzordean aurkeztu beharko dira partida jokatu eta zazpi (7) eguneko epean. Behin epe hori igarotzen denean, ez da inolako protestarik edo erreklamaziorik onartuko.
- Ezarritako epea igarotzen denean, ez da beste protestarik edo salaketarik onartuko, ezta aktan, arbitroen txostenean edo erreklamazioa egin duen klubak aurkeztu duen gehigarrian jaso gabeko ekintzen gaineko aipamenik ere.



5.2 Txostenak eskatzea

Kirol Diziplina Batzordeak txosten idatziak eskatu ahal izango dizkie klubei, zigorgarri izan litezkeen gertakarien gaineko informazioa biltze aldera.

Ezarritako epean TXOSTEN hauek EMATEN EZ BADIRA, ondoko zigorrak jarriko dira:

1.a	15 Euro
2.a	30 Euro
3.a	45 Euro
4.a	60 Euro
5.a	75 Euro

VI .- FEDERAZIO ORGANOAK

6.1 Federazioaren ordezkariak.

Klub batek FEDERAZIOAREN ORDEZKARIA bertan egotea eskatzen badu, partida hasi aurretik ordaindu beharko ditu joan-etorri gastua eta dagozkion tasak, asanbleak onartutakoak.

Era berean, araudi honetako 4.2 artikulua aplikatuko da, dieta ordaindu beharrik badagoen edo ez erabakitzeko, arbitroen baldintza beretan.

FEDERAZIO ORDEZKARIA idatziz eskatu beharko da, eta idatzia partidaren aurreko astelehenean, edo bost lanegun lehenago, partida aste barruan bada, aurkeztu beharko da, Idazkaritzan. Baldintza hauek betetzen ez dituen idatzirik ez da onartuko.

6.2 Federazioaren zirkularrak

Kirol Diziplina Batzordearen erabakiak, partiden ordutegiak, emaitzak, sailkapenak, egutegia eta abar jakinarazteko zirkularrak eta aktak klub bakoitzaren ordezkarietako bati bidaliko zaizkio posta elektronikoz, horretarako klubak berak egin duen fitxan adierazitako ord ezka ria ri.

Interesa daukaten klubentzat zirkular bat egongo da Federazioaren egoitzan, OSTEGUN arratsaldetik aurrera.

Zirkular horretan jakinaraziko dira ofizialki zer zigor ezarri diren.

6.3 Elkarrizketak klubekin

Erreklamazio guztiak idatziz aurkeztu beharko dira, eta klubek edozein kontsulta pertsonalegin ahal izateko hitzordua eskatu beharko dute Federazioan, Federazioaren bulegoko ordutegian.

Bide batez, gogoan hartu behar da Federazioaren bulegoa itxita egongo dela JAIEGUNETAN, LARUNBATETAN eta IGANDEETAN.



6.4 Lurralde amnistiak

Denboraldian zehar ematen den edozein amnistiak ez du baliorik izango ARAU URRATZE OSO LARRIETARAKO; Diziiplina Araudiaren arabera, honako hauek dira arau urratze oso larriak: EZ AGERTZEAGATIK edo ERRETIRATZEAGATIK EZARRITAKO ZIGOR EKONOMIKOAK.

6.5 Goleatzaile onenak.

Kategoria bakoitzeko goleatzaile onena izendatze aldera, jokalaria bakoitzak sartzen duen gol kopurua aktan jaso beharko dute arbitroek. Partidetako golak nork sartu dituzten argi eta garbi jasotzen ez duten arbitroei ordainsariaren % 50eko zigorra ezarriko zaie.

6.6 Hautatutako jokalaria

LURRALDEKO SELEKZIOAREN azterketetara, prestakuntzara, entrenamenduetara edo partidetara deitutako jokalaria adierazten zaion egunean eta lekuan agertu beharko da, non eta gaixorik ez dagoen edo lesio larri batek edo ezinbesteko beste zerbaitek galarazten ez dion; halakoetan, Federazioari jakinarazi beharko dio lehenbailehen, beti ere deialdiaren eguna baino lehen. Ondorenean, agertu ez izana justifikatzeko beharrezko dokumentazioa aurkeztuko du.

JUSTIFIKATU EZEAN:

- Ez agertzea: jokalaria eta klubari kargu hartuko zaio.
- Ez agertzea: 50 euroko zigorra ezarriko zaio klubari.
- Ez agertzea: ezabatu egingo da LURRALDEKO SELEKZIOAREN etorkizuneko deialdietatik, eta Gipuzkoako Lurralde Federazioaren Batzorde Teknikotik txosten bat bidaliko da Euskal Federazioaren atal teknikora eta Eskubaloiko Espainiako Erret Federazioa. Era berean, jokalaria portaera horren berri jakinaraziko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, hark egoki ikusiz gero, Federazioak edota Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako edozein beka edo laguntza ken diezaion.

6.7 Indarrean dauden araudiak

Araudi honetan jaso gabeko gai guztietan Partiden eta Lehiaketen Araudia eta Euskadiko Eskubaloiko Federazioaren Disziplina Araudia erabiliko da, bai eta Espainiako Eskubaloiko Federazioaren Joko Arauak ere.

Partiden eta Lehiaketen Araudian eta Euskadiko Eskubaloiko Federazioaren Disziplina Araudian jasotzen diren zigor ekonomikoak, era araudi honetan jaso gabe daudenak, murriztu egingo dira, eta antzeko beste kasu batzuetan ezarritakoak aplikatuko dira.

Partiden eta Lehiaketen Araudian eta Euskadiko Eskubaloiko Federazioaren Disziplina Araudian jasotzen diren zigorrek zorrotz aplikatzea erabakitze ahalmena izango du Gipuzkoako Eskubaloiko Federazioaren Kirol Disziplina Batzordeak.